

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

2207 *Hutsen zuzenketa, honako errege lege-dekretu honena: 3/2013 Errege Lege Dekretua, otsailaren 22koa, Justizia Administrazioaren eremuan tasen araubidea eta doako laguntza juridikoaren sistema aldatzen dituen.*

Hutsak aurkitu dira Justizia Administrazioaren eremuan tasen araubidea eta doako laguntza juridikoaren sistema aldatzen dituen otsailaren 22ko 3/2013 Errege Lege Dekretuan. Errege Lege Dekretu hori Estatuko Aldizkari Ofizialaren 47. zenbakian argitaratu zen, 2013ko otsailaren 23an, eta honen bidez behar diren zuzenketak egiten dira:

2. orrialdean, hirugarren lerrokadan, 1. lerroan, honako hau dioen lekuan: «... Horrez gainera, egun indarrean dagoen Doako Laguntza Juridikoaren 1/1996 Legearen aldaketa bat egin da...», honako hau esan behar du: «... Horrez gainera, aldaketa bat egin da egun indarrean dagoen Doako Laguntza Juridikoaren urtarrilaren 10eko 1/1996 Legean...».

4. orrialdean, zioen azalpenean, VI. atalean, zortzigarren lerrokadan, 1. lerrotik 3. lerroa bitartean, hau dioen lekuan: «Bestalde, aldaketa bat eragin du 9/2012 Legeko xedapen gehigarrietako batek (9/2012 Legea, azaroaren 14koa, kreditu-erakundeak berregituratu eta konpontzeari buruzkoa). Xedapen gehigarri horrek argitzen du», honako hau esan behar du: «Bestalde, 9/2012 Legean aldaketa bat egin da (9/2012 Legea, azaroaren 14koa, kreditu-erakundeak berregituratu eta konpontzeari buruzkoa); 36. artikuluan 4. paragrafoan g) letra gehitzen da, eta bertan xedatutakoak argitzen du».

4. orrialdean, zioen azalpenean, VI. atalean, zortzigarren lerrokadan, 5. lerroan, hau dioen lekuan: «15/2007 Legearen», hauxe esan behar du: «Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen».

10. orrialdean, xedapen gehigarri bakarrean, azken lerrokadan, honako hau dioen lekuan: «Enplegu publikoaren arloan aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 2. eta 3. artikuluen 6. puntuan aipatutako langile publikoei ez zaie aplikatuko aurreko puntuetan xedatutakoa.», honako hau esan behar du: «Enplegu publikoaren arloan aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluko 6. paragrafoan eta 3. artikuluko 5. paragrafoan aipatutako langile publikoei ez zaie aplikatuko aurreko puntuetan xedatutakoa.»